

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Amaia Isasi Amuriza

*Muxika,
Bizkaia (1930)*

Aurkibidea



Biografia



Amorebieta-Etxanoko Larrabiden jaio zen 1930ean. Aita bertakoa zuen eta ama Gorozikako (gaur egun Muxika) Pagai baserrikoa. Zazpi neba-arreba izan ziren. Umetan leku batek bestera ibili ziren bere aitaren lana zela-eta, kimikaria zen: Leioan, Lemoan eta Leonen bizi izan ziren. 16 urterekin Gorozikara joan zen amonarenera, baina bere etxekoak Leonen gelditu ziren bakoitzak bere bidea hartu aurretik. Leioako Udondoko eskolan ibili zen umetan. Aita eta aitita preso izan zituen gerra denboran. Gorozikako Agarre baserriko semearekin ezkondu zen; bere senarra urtez luzez izan zen Gorozikako aguazila eta postaria, eta herriak batzerakoan, baita Muxikakoa ere. Asuagoikoa baserrian bizi izan da. Bere auzoko [Mari Etxeandia](#)rekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Zintak

MUX-026

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-07-30
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

MUX-027

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-07-30
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Leioako Udondoko eskola

- **Erref:** MUX-026/004
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:06:31. **Bukatu:** 00:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Leioako Udondoko eskolara joan zen umetan, bertara joan baitziren familiakoak. Ez zen eskola zalea eta askotan huts egiten zuen nahita. 14 urteaz Leonera (Espainia) joan ziren bizitzera eta ez zen eskolara bueltatu.

2. Leon ez zitzaion gustatzen

- **Erref:** MUX-026/005
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:09:13. **Bukatu:** 00:11:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Leonen ez zen gustura egon. Gutunak jasotzerakoan, negar asko egiten zuen. Euskaldunak aurkitzerakoan edo euskara entzuterakoan asko pozten ziren. Bera bi urteren ostean Gorozikara etorri zen amumarenera, baina bere etxeak han gelditu ziren.

3. Eskolan banderari musu eman behar

- **Erref:** MUX-026/010
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:19:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Ez dute errepublika garaiko akordu askorik. Mariren aitita Gorozikako batzokiko nagusietako bat zen. Eskolan banderari musu eman behar izan zion eta eskuari eman zion Marik. Ez dute gogoan gurutzeak kendu zituztenik errezoak beti egiten zituzten-eta. Francoren argazkiak horman zutela, sarreran eskua altxatu eta abestu egin behar izaten zuten. Elizara sartu orduko ere elizpean abestu egin behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Mari: Nik errepublikako akordurik ez dekot. Orduen, orduko akordue ez dakitz nik besterik adxuntamientue egon zan oin soziedadie dauen lekuen, ta gero batzokidxe egon zan ¡Maria bizi dan lekuen. Ta nik akordue gure aittitte zan izen zan batzokiko neusixetaiko bat, ta republikan akordurik ez

dekot nik.

- Ez? ze eskolan kurtziek-eta kendu ebiezan...

- Oin baten bai, umiek izeneittik be, gure instintoa euki gendun. Eta emon oskuen zer bat, esplikaziño batzuk, ta orduen etor zien, oin ez naz akordetan, baia kanpoko batzuk. Ta banderie ekarri eben, oin ez dakitz zelako, oin por ahora ez dakitz, ta ha diskursoa ein nauenien nik librutik / esastien/ esan eustien ba banderieri mosue emoteko. Ta nik beti euki dot neurie, ta bakizu ze ein notsen? holan, hartu banderie ta eskueri mosue emon banderieri emon barik. Umie izeneittik. Oin ha igual izengo zan errepublikako banderie, nik ez dakitsut hori.

- Amaia: Franco hasi zanien, gerraostien.

- Mari: Gerra eurrien joan nitzen ni eskolara.

- Amaia: Bueno, zuk gerra eurrien be, ni lau urte gara, nik sei urte zuk hamar urte. Asko gehixau ez, ze sei urtegaz hasi eitten zintzen eskolara ta gero urten [...] bete orduko

- Mari: Ez dakitz zer izen zan hori bai akorduen, baia nik...

- Amaia: Ta gero Francon sasoien ba banderie. Ta eskue altxeu ta kanteu ta hala!

- Mari: Hareri banderieri mosue ez notsen emon, banderie bai hartu, baia neure eskueri emon mosue. Umiek izenaittik hantxe egoten da beren zertxue. Hori ez jast ahaztuten. Horixe ez.

- Amaia: Baia guk kurtzie beti eukin geñun eskolan e. Bai, guk bai, gure eskolan bai.

- Mari: Nik be ez dot ezetu kurtzie-eta kendu deuenik-eta, zer erreziek-eta eitten genduzen-ta.

- Tere (atzetik): ta Francok erretratue.

- Amaia: Bai hori bai, ta banderie ta hareri kanteu eskue [...].

- Mari: Guk ezetu dogu, ezetuko gendun, gurien be egongo zan Francon erretratue, nik itzi orduko eskolie egongo zan, ze hamalau urtegaz izten zendun eskolie.

4. Mezak eta sepulturak

- **Erref:** MUX-026/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:19:54. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Elizara sartu orduko elizpean abestu egin behar izaten zuten eskua altxatuta. Umeak goizeko mezara joaten ziren eta gurasoak beranduagokora. Sepultura ondoan batzen zen familia. Sepultura baten bat hiltzen zenean jartzen zen eta familia bakoitzak zuen berea. Mezak lehenago latinez izaten ziren. Andra bakoitzak bere meza-liburua izaten zuen.

5. Garizuma eta bekatuak

- **Erref:** MUX-026/012
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:22:04. **Bukatu:** 00:23:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Komulgatzera baraurik joan behar izaten zen. Konfesatzerakoan beldurrez egoten ziren, baina derrigorra zen. Dena kontatu behar izaten zen. Garizuman ez zen erromeriarik egoten, baina kanpoan egotea ere bekatu ei zen handik pasatzen zirenek sortarazi zitzaketen pentsamenduengatik.

Transkripzioa

- Mari: Ta gero komulgetan joan orduko, bareurik, beti bareurik, komulgetan joan goizien, goizeko mezara joan ta komulgetako. Ya arratsaldien eta hori eitten dan moduen lehen pentseu bez. Bareurik joan biher izeten zan komuniñoa hartzeko. Ta gero konfesetan ariñau, billurretan, ze orduen konfesoriek be, dana izeten zan pekatu-ta, panteu iladan ta lantzien bat konfesionarixora kontuek kontetan abadiari.
- Ta zematero joaten ziñien konfesetan?
- Mari: Nik ez dekot akorduen, baia hillien baten-edo igual joango gintzezan gu orduen konfesetan.
- Amaia: Baten baiño gehixau igual. Komulgetan joateko konfese ein biher izeten zeñun lelengo-ta.
- Mari: Ta dana zan pekatu lehen-ta.
- Amaia: Jantzan ein dozule domekan, ba hurrungo domekan konfeseu ein biher kolmulgetako.
- Mari: Halan izen zan lehenau.
- Dana kontetan zenduen?
- Amaia: Ba karo baze.
- Mari: Dana.
- Amaia: Konfeseu ezkerro, konteu ein /bizu/ biher dozu.
- Mari: Preguntetan otsuen eta dana, gordetie pekatu izeten zan. Gure sasoi en halantxik izen zan. Barre eitten dozu Mari Sol? Halantxik izen zan gure sasoi en. Baia, erromerixera joaten gintzezan domeketan.
- Ta horrek be konteu, han eitten zienak.
- Mari: Ta baten /esaskun/ esan oskun ba, garizumen-ta ez gendun jantzarik eitten, ta egoten gintzen han solo munetan-ta jarritte ta itxaoten, abadien esaskun baten, han egotie be pekatue dala, ze han paseten danan pentsamendue pekatue dala. Lehen dana zan pekatu-ta.
- Amaia: Berentzat izengo zan pekatu han egotie, dauzenentzat ez.
- Mari: Oin be ez da eitten pekatuek ta lehen ez zien egongo be.
- Amaia: Oin be pekatue pekatu izengo da. Lo ke pasa pekatutzat hartu ez duu eitten.

6. Ibarrurikoak harroagoak ziren

- **Erref:** MUX-026/013
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:23:51. **Bukatu:** 00:26:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Garizuma bukatzeko desiratzen egoten ziren erromeriara joan ahal izateko. Gorozikan ez zen domeketako erromeriarik egoten, Zugastietara joaten ziren. Ajuria auzoko jendearekin ondo konpontzen ziren, Ibarruri aldekoak, ostera, harroak zirela diote. Ibarrurin hain harroak ez zirenak Muniketako erromeriara joaten ziren.

Transkripzioa

- Mari: Baia garizumie ta jantzan, desietan garizumie akabetako jantzan hasteko. Zugastietara joaten gintzezan, soiñue joten hasten zan, ta jantzan. Ta gero danok etxera iladan.
- Hamen ez zan egoten erromeririk ala?
- Amaia: Ez.
- Mari: Ez, Zugastietan. Gure ama-eta itxeroten egoten zien hor hiru andrak eta "ontxe datoz gure gaztie". Bai ba, gu gure bozien hor kamiñoan gora, danok batera.
- Ta Zugastietan nun izeten zan?
- Amaia: Kurtzeroan.
- Mari: Kurtzeroan.
- Amaia: Kurtzeroan. Adxudxekoak (Ajuriakoak) egoten zien handik aldetik, Iborrikoak bestetik eta ta Gorozikekoak han zerien.
- Mari: Adxudxekoak eta gu gintzezan estilo batekoak, hor Iborrin bat edo bi harroak egon zien.
- Amaia: Buf, Iborriko jentie.
- Mari: Ostera gu Adxudxekoaz bat eittie izen zan danakaz.
- Amaia: Iburrikoak Txomin abadieri esan ei etsien Gorozikarrak izen gariela harroak.
- Mari: Igual
- Amaia: Bai. Txominek esan eban baten.
- Mari: Orduen guzurre esan deu baten Txominek be.
- Amaia: Esan botsie berari.
- Mari: Hori esan batsie, guzurre esan dotsie batan batek.
- Amaia: Iburrikoak takoiekin ta ipelako zerakin, gu abaraka-galtziaz be igual.
- Mari: Bai gu Adxudxekoak-eta estilo batekoak izen gintzezan gaztetan, estilo batekoak.
- Ta Iburrikoak-eta harroauak zer, jazkeran edo izekeran be bai.
- Amaia: Jazten, jazten, jazten.
- Mari: Danak ez, baia batzuk egon zien harroagauak.
- Amaia: Gehixenak. Ze danak ekiezan nebak Bilbon, bata ez daitz nun, ta bestie batai nun ta bestie nunun, ta eurek be joaten zien Bilbora ta ba beti egoten zien elegantetxuau Sagastitarak eta bueno. Ta gero, Iburrin be apur bet gure antzekoak Muniketara joaten zien. Harek Muniketara. Zuen Begon amuma-eta eta horrek Muniketara.
- Mari: Izengo zien bai.
- Amaia: Goikoak, baia honek Sagasti ta honek beheko zerak.
- Bego zure errenan amuma ta diñozu?
- Mari: Bai.
- Amaia: Bai, harek Muniketara joaten zien.
- Harek Aluzekoak die.
- Amaia: Bai Aluzekoak eta hango jentie Muniketara ta beste elegantetxuauak Zugastietara. Hor egoten zien.
- Mari: Zugastietara elegantetxuaua zen ta.
- Ta orduen Zugastietako erromerixen hori egoten zan, diferentzixe Iburrikoan artien ta...?

- Amaia: Bai. Nebak-eta be gorbatakin etorten zin horrek mutillek, horkoak.
- Mari: Baia estudxietan-eta egon zien-eta.
- Amaia: Ba horregaittik ba. Estudixetan ta biherrien Bilbon-ta, ta Bilbokoak gorbatakin etorte zien.
-Mari: Lehenau kolejixoa eon zienari be igerri eitten jaken. Oin kolejixoa dauena be iguala da, bestielakoa.
- Amaia: Danak dauz kolejixoa oin.
- Mari: Oin ez da igertzen, oin igerri bez.
- Baia han diñot. erromerixen, ze egoten zien bi zati moduen, batzuk...?
- Amaia: Ez. Jantzan nahaste.
- Mari: Ez, nahasteu, baia zuri eskatu eitten otsun baten batek jantzan joateko ta joaten zintten jantzan. Ta gero akabeten zan soiñue akabeu ta gero igual beste bategaz hasten zan.

7. Gorozikako Andra Mariak

- **Erref:** MUX-026/014
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:26:45. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Mutilak joaten ziren neskei dantzan eskatzera. Soinulariak. Gorozikan jaietan baino ez zen egoten erromeria. Andra Marietan gonbidatuak izaten zituzten etxeetan. Ibarrurikoek ez zuten Gorozikara joateko joera askorik.</p>

8. Bizkargi eguna

- **Erref:** MUX-026/015
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Bizkargi eguna Santa Kurtz eguna izaten zen, maiatzaren 3a. Hiru egunez ospatzen zen: aurreko domekan, egunean bertan eta errepikapenean. Letania egoten zen ermitaraino. Hiru soinulari egoten ziren.

9. Zugastietako, Okako eta Autzaganeko jaiak

- **Erref:** MUX-026/016
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:30:11. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Zugastietan Santo Domingo ermita egoten zen eta jaietan meza ostean erromeria. Hurrengo egunean Okan Edurtzetako amaren ermita inguruan txistua eta danbolina egoten zen. Autzaganeko San Bartolometan orkestra egoten zen domekaz eta astelehenez. Bertsolariak ez ziren hain ugariak izaten, Amaiaren osaba, Xabier Amuriza bertsolariaren aita, Autzaganen egoten zen bertsotan.</p>

10. Erromeriara eta kalera diru gutxirekin

- **Erref:** MUX-026/018
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:34:39. **Bukatu:** 00:36:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Ariatza auzoko Santa Kurtzetara, irailaren 14an, ere joaten ziren. Erromerietan ez zuten ezetakorik edaten, eta edatekotan gaseosa. Gernikara joaterakoan ere ez zuten ezer hartzen. Amaiak gogoratzen du Gernikako Arrien tabernan behin ezagun batzuk ikusi zituenekoa. Trenerako eta kakahueteetarako dirua baino ez zuten izaten.

11. Gernikako Lizeo zinemara

- **Erref:** MUX-026/019
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:36:06. **Bukatu:** 00:39:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gernikako Lizeoko zinema-aretoa egun zehatz batzuetan baino ez ziren joaten. Peparenean kakahueteak erosi, jan eta azalak lurrera botatzen zituzten. Zineman behin lagun bati gertatutako istorio barregarria kontatzen du, pantailakoa bere gainera zihoala pentsatzen baitzuen. Ezkondu ostean, Mari behin baino ez zen joan zinemara.

12. Auzoko guztiak Mariren etxera telebista ikustera

- **Erref:** MUX-026/020
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:39:41. **Bukatu:** 00:43:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Pelikula batzuk galarazita egoten ziren telebistan zein zineman. 3R ikusi behar ez zena zen. Mariri irratia aitabitxiak oparitu zion ezkondu zenean. Ana Rosa nobela entzuten zuten; soroko lanak ere uzten zituzten horregatik. Amaiak gogoan du Mariren etxera joaten zela telebista ikusten; auzoko guztiak batzen ziren bertan. Lehenengo telebista don Agustin abadeak izan zuen.</p>

13. Eskilasoaren-habietan olgetan

- **Erref:** MUX-026/021
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:43:03. **Bukatu:** 00:45:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Txori-habietan jolasten aritzen ziren. Mari eskilasoaren habiara igotzen zen. Patatekin jaten zituzten txoriak. Arbola gainera igotzen abila zen Mari; Amaia, oster, ez da ibili sekula horretan.

14. Elaiak zeruko txoriak ziren

- **Erref:** MUX-026/022
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:45:33. **Bukatu:** 00:46:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Kurloiek eta elaiak jartzen zituzten habiak inguruetan, baina elaiak ezin ziren ikutu zerukoak ei ziren-eta. Elaiak zaindu egin behar izaten ziren, garrantzitsuak ziren. Gero eta elai gutxiago daude.

15. Kukua eta saguzarra

- **Erref:** MUX-026/023
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:46:03. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Kukua entzuterakoak dirua poltsikoan izatea komeni da, aberastasuna omen dakar-eta. Gau-txoriak ere, saguzarrak, ugariak izaten ziren.

16. Tabaka, marroka, ixerka...

- **Erref:** MUX-026/025
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:48:56. **Bukatu:** 00:51:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Tabaka, marroka, ixerka... olgetan zuten. Jolas hauek azaltzen dituzte. Pantailaz kanpora daude Amaiaren alaba eta auzoko beste bat, Tere, eta beraiek ere ematen dituzte azalpenak.

17. Kromoak, txapak, tabak eta txirrinkola

- **Erref:** MUX-026/026
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:51:07. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Kromoekin eta txapekin era jolasten ziren. Tabak etxe guztietan egoten ziren. Mutilak txirrinkolakin ibiltzen ziren.

18. Mutilak pilotaka eta neskak panpinekin

- **Erref:** MUX-026/028
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:52:56. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Mutilak pilotaka aritzen ziren. Etxe aurrean edo frontoian aritzen ziren. Amaiaren ahizparen lehenengo panpina kartoizkoa izan zen, berea ez. Mariren ahizpari panpina beltza oparitu zioten, eta ez zitzaion gustatu. Edozerekin olgetan zuten.</p>

19. Sokadantza eta diaboloa

- **Erref:** MUX-026/029
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Sokadantzaz eta diabolorekin asko ibiltzen ziren. Jokoetako abestiek erdaraz izaten ziren.

20. Antzinakoek ez zekiten gaztelaniaz

- **Erref:** MUX-026/030
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:56:00. **Bukatu:** 00:58:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Antzinako zaharrek ez zekiten ondo gaztelaniaz berbetan. Mariren gurasoak bazekiten ondo kanpoan lan egindakoak ziren-eta."Sagarra manzana, iketza carbón, mujer, andrea ta hombre gizon" ikasten zuten eskolan, gero abesti bihurtu zena.

21. Eguneroko eta jaiegunetako jatorduak

- **Erref:** MUX-026/033
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:59:48. **Bukatu:** 01:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Indaba eguneroko jatekoa izaten zen. Iturriko urarekin taloa egiten zuten. Aste Santuko barikuetan patata-tortilla edo bakailaoa jaten zuten. Gonbidatuak zeudenen, etxeko oiloa hil eta gisatua eta arroz-esnea prestatzen zen. Gabonetan eta Andra Marietan zopa, garbantzua, aza, gisatua, arroz-esnea... egoten zen. Urtebetetze egunean, auzokoengana joaten ziren anisarekin eta gailetekin ospatzera.</p>

22. Arrain-saltzaileak

- **Erref:** MUX-026/035
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:03:50. **Bukatu:** 01:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Arrain-saltzaileak joaten ziren Gorozikara. Batez ere antxoa eta sardina jaten zuten. Bisigua lehen ez zen luxua, Gabonetan beti jaten zuten. Ez zuten hozkailurik izaten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com